

RASFF

TXOSTENA


ALERTAK ETA JAKINARAZPENAK

Jakinarazpenen kategorizazioa
Jakinarazpenen jatorria
Jakinarazitako arriskuen tipologia
Tartean dauden lehengai eta pentsuak
Laburpen-taula

JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA

2017ko bigarren lauhilekoan, animalien elikagaiei buruzko **83 jakinarazpen** egin dira. Horietatik **9 alertak izan dira, 58 informazio-jakinaraizpenak eta 16 mugan egin diren ukapenak.**

Egindako kontrol motari dagokionez, **27 jakinarazpen Mugako Ikuskapen Postuek (MIP)** igorri dituzte; **34**, berriz, pentsuen ekoizpen-kateko zenbait arlotan egindako **kontrol ofizialek**; eta **22**, azkenik, **autokontroletan detektatu dira** eta industriak berak igorri ditu.



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Epe horretan jasotako **83 jakinarazpen** horietatik **34tan** (% 41), kaltetutako produktuaren jatorria **beste herrialde bat** izan da. Jakinarazpen gehienetan tartean zeuden herrialdeak hauek izan dira: 5etan, Errusia eta Zeelanda berria (bakoitzak 5), eta 4tan, Errusia, Argentina eta India (bakoitzak 4).

Errusiarekin lotutako jakinarazpenetan, susmoa zegoen produktua faltsututa zegoela **pentsutarako legamian urea gehigarri gehiegi sartzeagatik (3) eta koltza-irinean salmonella egoteagatik.**


Zeelanda Berriaren kasuan, jakinarazpenek zerikusia zuten **haragi-irinetako salmonellaren** presentziarekin **(4)** eta **txakurren mastekagarrietako enterobakterioen** presentziarekin **(4)**.

Jakinaraizpen gehien egin duen herrialdea **Belgika** izan da: guztira **17** egin ditu. Belgikaren ondoren, Alemaniak (11), Espainiak (8) eta Finlandiak (8) egin dituzte gehienak.

JAKINARAZITAKO ARRISKUEN TIPOLOGIA

Denbora-tarte honetan detektatutako arrisku gehienak **mikrobiologikoak** izan dira (**% 51**), eta **ondoren mikotoxinekin lotutakoak (% 10)**.


Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, salmonellak eragin du jakinarazpen gehien (42 jakinarazpenetatik 33). Salmonella aurkitu den lehengaien artean hegazti- eta/edo haragi-irina eta sojak eta koltzati eratorritako produktuak nabarmendu behar dira.



TARTEAN DAUDEN LEHENGAI ETA PENTSUAK

Produktuen arabera, **lehengai** dagozkie jasotako **jakinarazpenen % 65**, **laguntza-animientzako** pentsu eta produktuei **% 22**, **ioditzeko animalientzako** pentsu konposatuei **% 8** eta **gehigarri eta aurre-nahasketei % 5**.

Jakinarazpenak eragin dituzten produktuen artean honako hauek aipatu behar dira, hurrenez hurren: **maskotentzako pentsuak (txakur eta katuentzakoak) eta hegaztientzako pentsuak (13)**, **haragi-/hegazti-luma-irinak (13)**, **koltza-irinak/taloak (6)**, **soja-irinak (6)** eta **akuikulturako arraintzako pentsuak (6)**.



Eranskina. RASFFren bidez 2017ko 2. lauhilekoan animalien elikadurari buruz egin diren informazio-alerten eta jakinarazpenen laburpen-
taula.

ARRISKUA	KLASEA	KOP.	PRODUKTUAK	KOP.	ESPEZIEA
Mikrobiologia	Salmonella	32	Sesamo-taloa	1	<i>Salmonella Ordenez</i>
			Maskotenzako pentsua	1	<i>Salmonella Lexington, Salmonella Mbandaka</i>
			Liho-hazien pelletak	1	<i>Salmonella Montevideo</i>
			Hegazti-irina	1	<i>Salmonella spp.</i>
			Haragi-irina	2	<i>Salmonella spp.</i>
				5	<i>Salmonella Infantis</i>
			Koltza-irina	1	<i>Salmonella Infantis, Salmonella Livingstone</i>
				5	<i>Salmonella Tennessee</i>
			Ekilore-irina	1	<i>Salmonella spp.</i>
				1	<i>Salmonella Tennessee</i>
			Luma-irina	1	<i>Salmonella spp.</i>
			Koltza-estrusioa	1	<i>Salmonella Gatineau, Salmonella Liverpool</i>
				1	<i>Salmonella Mbandaka</i>
			Soja-irina	1	<i>Salmonella Cerro</i>
1	<i>Salmonella Kentucky, Salmonella Senftenberg</i>				
2	<i>Salmonella Senftenberg</i>				
Txakurrentzako mastekagarriak	2	<i>Salmonella agona</i>			
			2	<i>Salmonella spp.</i>	

ARRISKUA	KLASEA	KOP.	PRODUKTUAK	KOP.	ESPEZIEA
Bestelako mikrobiologia	Salmonella + enterobacteriaceae	1	Maskotenzako pentsua	1	<i>Salmonella Derby + enterobakterioak</i>
	Enterobakterioak	8	Txakurrentzako mastekagarriak	2	Enterobacteriaceae
			Haragi-irinak	1	Enterobacteriaceae
			Maskotenzako pentsua	5	Enterobacteriaceae
<i>Clostridium Perfringens</i>	1	Arraintzako pentsuak	1	<i>Clostridium Perfringens</i>	

ARRISKUA	KLASEA	KO P.	PRODUKTUAK	KOP .
Mikotoxinak	B1 Aflatoxina	7	Kakahueteak	5
			Ekilore-hazia	1
			Arroz-zahia	1
		<i>Claviceps purpurea</i>	1	Zekalea
Dioxinak	Dioxinak	7	Bentonita	1
			Kobalto-karbonatoa	1
			Arto-glutenaren irina	1
			Zink-oxidoa	1
			Pentsu osagarria	1
			Sagar deshidratatuaren pulpa	1
			Kobre-sulfatoa	1
Metal astunak	Arsenikoa eta iodo-eduki handia	1	Alga-irina (<i>Ascophyllum nodosum</i>)	1
	Merkurioa	1	Legamia	1
	Beruna	1	Maskotentzako pentsua	1
PAE	PATak	6	Arrainentzako pentsua	4
			Hegazti-irina	1
			Txerri-odol deshidratatua	1
Beste batzuk	<i>Ambrosia spp.</i>	6	Txorientzako pentsua	5
			Soja	1
	Gosipol askea	2	Kotoi-hazia	2
	GEO baimendu gabea (MON531; MON1445)	1	Kotoi-hazia	1
	Gaixotasun-kausaren zantzua	1	Arrainentzako pentsua	1
	Osasun-ziurtagiri ezegokia + baimendu gabeko irradiazioa	1	Txakurrentzako mastekagarriak	1
	Lizunen presentzia	1	Artoa	1
	Faltsutu izanaren zantzua (urea gehigarria)	5	Legamia	4
			Hegazti-irina	1